

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Ostirala, 2012ko otsailaren 17a. IX. urtea. 2.362. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Festa gogoz joan da jendetza Tolosako inauterien txupinazora, eta hau lehertu ondoren zoramenak hartu du Plaza Zaharra. E. MAIZ

ZURRUNBILO EROAN MURGILDUTA

Hasi dira Tolosako inauteriak eta jai giroaz busti dira bazterrak; Ostegun Gizeneko txupinazoak ireki die bidea sei eguneko musika, algara eta mozorro festari

Eduardo Chocanok Inauterizale Kuttuna izendapena jaso du eta berak bota du suziria; Kabi Alai elkarteak eta On Ostegun Gizen konpartsak girotu dute jaien hasiera 04-5



Prezio oso bereziak

Galtzerdiak 1€ eta 2€

Poloak 11€

Errementari Kalea, z/g
TOLOSA • Tel.: 943 67 16 30



LENTZERIA

Lander Etxeberria aske gelditu da

Preso billabonatarra baldintzapean aske utzi dute, 10.000 euroko bermea ordaindu ondoren

Asier Imaz Villabona

Lander Etxeberria aske uzteko erabakia hartu zuen atzo Espainiako justiziak, 10.000 euroko bermepean. Atzo, 14:30erako, bermea ordaindurik zegoen, eta senide eta lagunak Madrilera abiatu ziren autoz, Etxeberria Estremarako espetxean (Madril) baitzegoen. Villabonatik atzo azaldu zute-

nez, «sendiak egin beharreko gutzia egin du, beraz, arratsaldean zehar askatu beharko lukete. Hala eta guztiz ere, 24:00ak arte espetxean edukit lezakete».

Lander Etxeberriari lehen harrera egiteko, 01:00etarako zabaldu zuten deialdia Villabonan. Lander Etxeberria 2011ko apirilaren 14an atxilotu zuen Guardia Zibilak, Beran (Nafarroa), lanetik irten zenean, eta Aitor eta Igor Esnaola legorretarrak atzeman ondoren. Bigarren atxiloaldia zen hau. Sendiak behin eta berriz eskatu du Lander Etxeberria billabonatarren askatasuna, eta azken eskariari eman diote baiezkoa, bermepean.



Lehen espetxealdiaren ondoren Etxeberriari egindako lehen espetxealdiaren ondoren, lehen espetxealdiaren ondoren Etxeberriari egindako lehen espetxealdiaren ondoren.

Rondilla kalea itxita egongo da datorren osteguneko eguerdira arte

Tolosaldea Garatzenek eta Tolosako Udalak garraio publikoa erabiltzeko eskaera egin diote herritarrei

I. Garcia Tolosa

Inauteriak direla eta, atzo eguerditik Rondilla kalea trafikoa erantzat itxita geratu da. Hilaren 23ko 12:00etan kalea berriro irekiko da. Ibilbide luzeko autobusek, Rondilla 34ren ordez, Santa Klaran egongo dute geldialdia. TSST autobusak, larunbatean, 14:00etatik aurrera, Amarotzetik sartuko dira eta geldialdiak Kondeanekon eta Jon Andoni Irazustan (bialean) egongo dituzte. Horrez gain, Zaldunita bezperan, Hiribusak 12:00etatik aurrera geldialdiak Zumardi Txikin, Foruen etorbidean eta Geltokian egongo ditu, Rondilla eta San Frantzisko trafikorako itxita egongo baitira.

Tolosaldea Garatzenek eta Tolosako Udalak Inauterietako garraio zerbitzu bereziak ezarri dituzte; auto pribatuaren erabilera ekiditeko eta herritar guztiak garraio publikoa erabiltzeko eskaera egin dute.

Aldiriko tren zerbitzu berezia

Tolosa eta Donostiako Inauteriak direla eta, Renfek aldiriko tren zerbitzu bereziak antolatuta ditu otsailaren 19an, 20an eta 21ean. Zerbitzu berezi hauek, 48.100 eserleku eskainiko dituzte. Irun-Brinkola ibilbidean, gaueko aldiriko zerbitzuak indartuko dira ere. Horiek horrela, igande eta astelehen gauetan, gauerditik 07:30ak arte, Renfek 32.200 eserleku eskainiko ditu.

Gaueko etengabeko zerbitzu honen xedea da bidaiari kopuruaren gehitzea erantzutea, eta batez ere, gaueko errazago mugitzea. Gaueko zerbitzu berezietan, Renfe Aldiriak eguneko zerbitzuak ere indartuko ditu Tolosa eta Donostiara, batez ere igandean, Tolosan jaieguna delako. Egun horretan, 39 tren berezi jarriko dituzte.

Bertako eta garaian garaiko produktuak kontsumitzeko deia zabaldu dute

Tolosako azoka indartzeko euskarri berriak aurkeztu dituzte: liburuxkak, panelak eta webgunea

Imanol Garcia Tolosa

Tolosako azoka indartzeko webgunearen eta informazio liburuxka eta panelen aurkezpena egin dute Tolosako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Tolomendik eta azokan izaten diren baserritarrek. Bertako produktuak eta garaian garaikoak kontsumitzeko deia egin dute, eta mezu hori zabaltzeko euskarri berri horiek aurkeztu dituzte. Hala, www.tolosakoazoka.com webgunea martxan jarri dute eta bertan hainbat informazio izango da: ekoi-zeleak, produktuak, errezetak, azoka berezietan buruzko informazioa... Bestalde, bi liburuxka argitaratu dituzte, bat Zerkausikoa eta beste Berdura plazakoa. Horrez gain, aipatutako gune bakoitzean bi panel jarriko dituzte azoka izaten denean.



Erakundeetako ordezkariak eta zenbait baserritar, atzo, Zerkausian, panel berrien artean.

Hasier de los Rios Ingurumena, Merkataritza eta Azoketako zinegotziak kanpainaren leloa nabarmendu du, *Bertakoa eta gaurkoa*: «Informazio hau zabaldu nahi dugu jendea konturatu dadin azoketan dagoena nola iristen den bertara. Gure baserritarrek egin dako lana hor dago; beraiek ekartzen dituzten produktuak, garaian garaikoa, erosi daitezke azokan».

Aldundia ohiko azokak bultza-

tzeko prest dagoela azaldu du Jon Uriguen Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko departamentuko diputatuak: «Erronka da hau gutzia sustatzea. Jendea kontzientzia hartzen ari da garaian garaikoa erosteko, baina, bestalde, ohituta dago edozein produktu edozein garaian erostera». Webgune berriarekin, Uriguen diputatuak teknologiatik berrii begira egindako apustua nabarmendu du.

Tolomendik bitartekari lana egin du erakundearen eta baserritarren artean. Iker Karrera Tolomendiko teknikariak esan du-

ez, «azokak historia bat du. Etorritzuna izan dezan, aurrera begira lan egin behar da». Sortu den materialekin kontsumitzaileek azokaren inguruko ezagutza berreskuratu nahi dela esan du: «Otsailen tomatea ezin da lortu gure baserrietan».

Begoña Aristik Zerkausiko saltzaileak ordezkatu zituen aurkezpenean. «Kanpaina honekin baserritarrek egiten duten lana eraberritzea nahi da», esan du Aristik. «Azokak bizirik mantentzeko horrelako apustuak egin behar dira eta horrekin batera jendea irarazteko erosi dezan eskatu».

Jose mari jatetxea
Inauteritan menu bereziak
Etorri!

Lehen menua	Bigarren menua
Angula freskoak Baserriko oiltsak edo txuleta Pastrea Kafea Crisanza rioja edo sagardoa	Tolosako babarrunak Lenguado "menière" edo baserriko oiltsak Pastrea Kafea Crisanza rioja edo sagardoa
60€	27€

Erreserba egiteko deia
949682047 Oñak 11,12. Lizartza baserria.
Lizartza Oñak 14-16, 21-ate, Tolosa baserria.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Eskaintza.** Pertsona bat behar da 2 ume zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. Autoa behar da. Interesatek, deitu 669 369008 telefono zenbakira.

GALDUTAKOAK

■ **Eraztuna.** Zilarrezko pieza borobil bat duen eraztun beltz bat galdu nuen Tolosan larunbatean (otsailaren 11n) Zerkausian inguruan. Norbaitek aurkitu badu deitu mesedez telefono honetara: 625 709 611.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Villabonako Errota auzoan. Interesatek, deitu 619 770458 telefono zenbakira.



Julen Telleria ◊ Inauterizalea

Ostegun Gizenerako eguraldi onaren zain pasatzen ditu egunak Julen Telleriak, eta txupinazoko suzeria botatzen duten unetik aurrera, ez du atsedetik hartzen.

«Mozorroek kolorea ematen dute, eta txarangek doinua»

Itzea Urkizu

Hamaika begitatik begiratzen ditu Julen Telleriak (Tolosa, 1990) inauteriak: txarangan, aisialdi taldearekin nahiz kuadrilarekin parte hartzen du festarik zoronetan.

Nola bizitzen dituzu Ostegun Gizen bezperako egun horiek?

Urteak pasa ahala gero eta urdu-riago jartzen naiz. Zerura begira pasatzen ditut egunak; pentsa, txikia nintzela erreztatu ere egin izan dut, inauterietarako eguraldi ona eskatuz. Gainontzean, mozorroak prestatzen eta egunak kontatzen joaten zait astea.

Tolosarrak txarangezaleak al dira?

Erabat. Baina hori ez da inauterietako kontua bakarrik, urte guztian ikus daitekeen gauza da. Noski, horri inauterietan heltzen zaio bere apoteosia. Nire ustez, txaranga ezinbesteko osagaia dira Tolosako inauterietan. Mozorroek ematen diote kolorea, txarangek doinua. Ezin imajina nitzake txarangerik gabeko inau-

teriak. Eta pentsatu nahi dut ez dela nire kontua bakarrik; txarangen doinurik gabe Ostegun Gizeneko txupinazoa, diana, zenezetarako igoerak, jaitsierak... ez lirateke inauteri.

Gero eta gazte gehiagok prestatzen dute karroza edo plataforma.

Benetan pozgarria da gure belau-naldia ere inauterietan modu parte hartzaile batean inplikatu dela ikustea. Eguberri ondoren asko lanean hasten dira inauteriei begira, eta hori txalogarria iruditzen zait, horrexek mantentzen baitu piztuta inauteria. Honek beste aurpegi ilunxeago bat ere badu. Plataformetan musika al-tuegi eta maila egoista xamarrean erabiltzen da, eta nire ustez festa kolektibo baten alde eginez eta errespetuz, guztion arteko bizikidetzaz lortzeko bidea egin behar harko litzateke. Beste inauterizale bati irakurri nion moduan, inauteri guztiek dute lekua Tolosakoetan, eta behar-beharrezko-tzat jotzen dut bakoitzari bere lekua egin eta errespetatzea.

↓ Tragoxka batean

- **Egunik onena.** Ezin dut bat aukeratu, baina Astelenita.
- **Inauterietako une bat.** Aste-artita gauetan txarangarekin abiatzekoa.
- **Mozorro gogoangarri bat.** Esbandieratori Tolosarri konpartsa atera genuenean, denen aurretik kaxa jotzen atera nintzenekoa.
- **Abesti bat.** Hunkigarriena *Troika*, baina nire kuttuna *Baila Negra*.

Kazkabarra aisialdi taldearekin ere aritzen zara Astelenitan, ezta?

Egia kontatzen hasita, ni egunean zehar txarangarekin aritzen naiz Astelenitan ere. Bukatutakoan mozorroa jantzi eta gainontzeko begiraleekin afaltzera eta parrandara joaten naiz, eta hori tranpa da. Baina tartetxo hau aprobetxatu nahi nuke begirale guztiek egun horretan eta aurreko hilabeteetan egiten duten lana



HITZA

goraipatzeko. Ez da samurra izaten, erantzukizun handia da eta askotan ez da esfortzu hori aitor-tzen. Finean, gustatzen zaigulako egiten dugu, eta ikaragarri ondo pasatzen dugu begiraleok.

Noizbait huts egin al duzu?

Urte pare batez eskiatzera joan ginen inauterietan, bizpahiru egunerako. Gainontzean, ez dut sekula inauteririk galdu, ezta sekula galduko ere, printzipioz behintzat.

Dena prest datozen egunotarako?

Tradizioari jarraituz, ez. Kuadrilarekin mozorrotzen hasi ginetik behin ere ez ditugu gauzak garaz egin izan. Nik uste dut gustatu ere egiten zaigula adrenalina

puntu horrekin ibiltzea. Oraindik ez dugu inoiz ere hutsik egin, eta batetik ez bada bestetik bilatzen dugu modua inauteriak hastera-ko dena lotuta izateko. Beti pentsatzen dut noizbait ikasiko dugula.

Hausterre egunean esnatzen zarenean, zer pentsatzen duzu?

Kostatzen zait esnatzea, inauteriak amaitu direla onartze hori apur bat atzeratze aldera. Balorzio eta aje eguna izaten da, eta ajea handia bada, bezperako ibil-eren balorzioa ere ez da txarra izango. Errealitatera itzultzeko unea da, baina egia esan, pasa badira ere, ondo pasa izanak, ez dit inongo penarik sortzen.



Zorionekoak gu!

Sutria airean leheritu ostean hasi zen benehako jaiak, musika, dantza eta txanpainak ez zen faltatu Plaza Zaharrean. | IRENE GILLES



Esker-eskum: Kabi Alai elkarteak kideek Eduardo Chocano omendu zuten. Chocano suziariari su ematen. Udaltzeko baloizain Kabi Alai elkarteak. Udaf Korporazioa eta dantzariak. | I. S. M. A.

Ondo pasa inauterietan!!

26 M. en DUD. + 10% inauterietan bakarrik

28'1

logikaline
943 31 86 33



On Ostegun Gizen konpartsaak Txerribobila ateratzen duen kalera estreinekoak. Txistotarak eta txerriak eman zitoten kolorea plazari txaranga doinuen artean. | L. M. A. / IRENE GILLES

I. Terradillos-E. Maiz Tolosa

Lehertu da jaiak. Paregabeko festa batetik behar dituen osagaiak izan zituen atzo Tolosa. Ostegun Gizen guztietan bezala, txarangen dotina, jendearen festarako gozosa eta umorea, kolorea, txerria eta txistotarak ez nuten hutsik egon, eta, gainera, eguraldiak ederki lagundu zuen.

Egunerdi iristeko irrikaz eta urduritasunez nabari ziren haur, gazte nahiz helduak. On Ostegun Gizen konpartsa berria Plaza Zaharrean sartu, eta Ostegun Gizen pertsonaia jendartara zaharkatu eta udaltzeko baloizain igotzarenekin batera hasi zen Kabi Alai elkarteak *Udai Korporazioa* berrikotatzen. Baitetik, aurtengo inauterietarako Kuttun Eduardo Chocano norentzat esker hitzak izan zituzten, eta bestetik, krisia eta ihaki Urtean sartu bera izan nuten ahotan. Antza diru laguntzaren bat eskatu nahi omen diote udalaren egosera pizka bat hobetze aldera.

Suzria jaurritzeko ardurak Eduardo Chocanok izan du aurtengo, bera baita aurtengo inauterietako Kuttuna. Gogotsu eman zion su, eta horrekin batera hasi zen dantza, algarra, eromena. Omenaldia suziaren aurretik jaso zuen Chocanok Kabi Alai elkartearen eskutik. Inauterietan alde urteetan egindakoak nabarmendu zuten, eta onogarririk bezala, elkarrekin nahitaz eskaini zitoten.

Kalean, txaranga protagonista. Eurenkin batera, kale kale ibili ziren herriarabak dantza eta soltoko. *Suskopatsa* bezalako dotumen erriñora. Tarteka derrigorrezko galdutakoak eginez, tragoko hartu eta txistotarak guztiak jateko. Arratsaldean, zeren plaza jendetz bete zen, eta iluntze aldean, Romantik herriaren eta Txarngulo plazan ikusi ahal izan zen zeren suzkoa. Ostegun Gizen dantzariek borobidu zuten.

Meheenen eguna
 Gaurkoan, Ozenki txistulari taldeak girotxoko diru kaleak goizean. Arratsaldean, berriz, zeren festa izango da, eta gauean, 20:00ean, Ostiral Mehe eguneko dantzariek. Arpegitaldaren ikuskizunarekin amaituko da eguna.

European aurrezten.

Kutxabank aurrezki idelak.

Reklamazioa gure Aurrezki Gidak

kutxa



Txosna gunea eguerdian ireki zuten atzokoan, 12:30ean. Bost eguneko jai gune alternatiboa antolatu dute bertan, herriko zortzi eragilek. A. IMAZ

Txosnak inauterien parte direla eta aparte ez uzteko eskatu dute

Herriko zortzi eragilek antolatu dute txosna gunea, elkartasuna oinarri hartuta eta jai gune alternatiboa sortzeko helburuarekin

Gaurtik astelehenera hamaika musika taldek kontzertuak eskainiko dituzte

Asier Imaz

Tolosako Euskal Herria plazan kokatu dute aurten ere txosna gunea. Herriko zortzi eragile ari dira bertan lanean, jai gune alternatiboa sortuz, elkartasuna oinarri hartuta. Txosnak inauterien eta Euskal Herriaren parte direla aldarrikatzen dute, aparte ez uzteko eskatuz.

2011. urtearen amaieran hasi ziren txosna batzordea osatzen. Zortzi eragile agertu ziren bilertara, eta udaletxearekin lehen bileran urtarrilean egin zuten. Arlo honetan, eta batzordeko kideen esanetan, udal aldaketaren eragi-

na nabarmena izan da: «Aurten udalarekin eztabaida gutxiago izan ditugu, eta erraztasun handiagoak jarri dizkigute. Aurreko urteetan eztabaidan galtzen genuen denbora hori, beraz, lanerako erabili dugu».

Lan horren barruan kontzertuak antolatzearena zegoen. Hamaika taldek joko dute txosna gunean inauterietan. Batzordeko kideek, herriko eta inguruko taldeei eman nahi izan die aukera, eta ondorioz, bertan izango dira Switch, Potentor eta Gugaz bezalako taldeak.

Antolatzaileek gozatzeko aukera ere izango duten arren, inau-

terietan gogotik egin beharko dute lan. Iganderako eta astelehenerako, adibidez, 120 lagun elkar-tu behar izan dituzte txandak egiteko, txosna guneak auzolanean funtzionatzen baitu. Urterik urte, txandetan gero eta tolosar gehi-gok parte hartzen dutela ere nabarmendu dute batzorde kideek.

Berrikuntzen artean, bi datu aipatu dituzte: lehen, aurten asteartean txosna gunea ez dutela zabalduko, azken urteetan jende oso gutxi ibiltzen zelako inauterien azken egunean; bigarrena, baso gogorak ez direla erabiliko, azken urteetan ez baitzuten bat ere berreskuratzen, eta ondorioz, ingurugiroari lagundu baino kalte egiten zitzaioelako.

↓ Datua

8

■ **Herriko eragileak.** Txosna gunean herriko zortzi talde ari dira lanean. Alde batetik, inauterietan jai gune alternatibo bat egotearen aldeko apustua egin dute, eta bestetik, urte guztiko ekitaldiak aurrera eramateko beharrezkoa duten diruaren zati bat biltzeko antolatu gunea. *Txosna Euskal Herriaren parte ta ez utzi aparte* mezua ere zabaldu nahi izan dute. Hauek dira eragileak: Bilgune Feminista, Gazte Independentistak, Ikasle Abertzaleak, Jatorkin, San Blas-piko Gazte Asanblada, Bai Euskal Herriari, Euskal Herria Sozialista eta AHT Gelditu! Elkarlana.



Txosna batzordeko kideak inauterietako egitaraua eskuetan dutela. A. IMAZ

↓ Egitaraua, Euskal Herri plaza

HILAK 17, GAUR OSTIRAL MEHEA

- **18:00etan.** Txosna gunearen irekiera.
- **22:00etan.** Switch, Potentor eta Gugaz taldeen kontzertuak.

HILAK 18, BIHAR ZALDUNITA BEZPERA

- **18:00etan.** Txosna gunearen irekiera.
- **22:00etan.** Egurra ta Kitto eta Resaka taldeen emanaldiak.

HILAK 19, ETZI ZALDUNITA

- **16:00etan.** Txosna gunearen

irekiera. Inauterietako aurreko egunekin alderatuta, bi orduz aurreratuko dute jai eremuaren irekiera ordutegia.

- **18:00etan.** Laket taldearen kontzertua.
- **22:00etan.** Kituka Burundi talde afrikarraren doinuak eta Itzel erromeri taldearen emanaldia.

HILAK 20, ASTELEHENA ASTELENITA

- **16:00etan.** Txosna gunearen irekiera. Zaldunitan bezala, goizago irekiko dute Astelenitan txosna.
- **00:00etan.** 3 gabe 2 eta Bad Sound System taldeen emanaldia.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Ikastetxeetan egindako mozorroekin atera dira kalera irakasle eta ikasleak, inauterietan ongi etorria emateko asmoz. HITZA

Inauteriak eskualdeko ikastetxeetan

Ibarran, Berrobin, Anoetan, Iruran eta Villabonan, besteak beste, inauterietako jaialdiak eta ospakizunak egin dituzte

Asier Imaz

Tolosako inauterietan eskualde guztian izaten dute oihartzuna, horren adibidez, hainbat ikastetxeetan egiten dituzten jaialdi eta

ospakizunak dira. Irakasle eta irakasleak mozorroturik ateratzen dira patiora edo kalera, gurasoen gozamenerako. Hauek, argazki kamerak eskuetan, oroitzapen politikak pilatzen ibiltzen dira.

Iruran hasi ziren ikastetxeen ospakizunak, asteartean. Ikastolako haurrak, mozorroturik, jaialdia antolatu zuten frontoian. Hauen senideek, harmailak bete zituzten, txikien jauzi eta algarak gertutik jarraitzeko gogoz.

Anoetan, herenegun, inauterietako jaialdiaren 25. urteurrena ospatu zuten. Urte guzti hauetako ibilbidea laburtzeko asmoz, orain arteko emanaldirik onenak

aukeratu eta antzeztu zituzten kiroldegian.

Ikastetxe gehienek, ordea, Ostegun Gizona ospatzen dute. Ibarran, adibidez, pailazoz jantzita irten dira Uzturpe Ikastolakoak plazara, eta Berrobin, Lantzeko inauterietan. Villabonan Fleming ikastetxeko haurrak, basoz atera ziren, eta kiroldegian jaialdi ederak eskaini zuten. Jesusen Bihotzakoei, extralurtarrez mozorro-

tzea erabaki zuten, eta hauek ere herriari euren dohain harrigarriak azaldu dizkie, hori bai kalejirarik gabe.

Gaur, Zizurkilen

Jesusen Bihotza Ikastolako ikasleak kalejiran irtengo dira Ostiral Mehean kalera, margolariz jantzita. Lehendabizi desfilea egingo dute herrian barrena, eta ondoren, plazan emanaldia.

Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



ANTTON IRIZAR IMAZ

*Urak daskamena
urak daroa;
zuk emandakoa
gurekin gelditzen da.*

Aintzane eta bere ama
Amezketa familia

Ilizabai-Amezketa, 2012ko otsailaren 17a



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta/Aldea: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Irura, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Gora eta behera



JAIETAN, EUSKARAZ NOSKI

Tolosako kultur etxean, Galtzaundiren gainean, pankarta handi bat ikus daiteke, *Euskaraz bizi nahi dut* dioena. Inauterietan ere, euskara entzun dadila bazter guztietan. A. IMAZ

Agurrak



Egunero iluntzean irikita. Igande eguerdian ere irikiko dugu. ZATOZ!!!!

Agenda

INAUTERIAK

TOLOSA

- **11:30.** Ozenki Txistulari taldearen kalejira.
- **16:30.** Zezen plazan zezen festa, Kabi-Alai txarangak alai-

tuta. Ondoren, kalejira izango da.

- **20:30.** Ostiral Mehe eguneko danborrada.
- **22:45.** Arpegi Taldeak antolatuta, Ostiral Mehe eguneko jaialdia Leidor aretoan.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurrak**

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



Tolosan etxe adosatua salgai:

eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autorentzako garajea, txokoa, jardina eta trastelekua.

Interesatuak, deitu
678 267657
telefono zenbakira.



Idoia Gobantes

- Elikagaien Zientzia eta Teknologian doktorea EHU unibertsitatean. Kolegiatu zenbakia: 2101
- Giza Elikadura eta Dietetikan diplomatu.



ELIKADURA HEZKUNTZA ETA DIETETIKA AHOLKULARITZA

- Elikagai ohiturak hobetzeko helburuz, elikaduraren ikuspuntutik aholkatzea.
- Umeak, gazteak, helduak eta adinekoak, haurdun dauden emakumeak, edoskitzea, menopausia, pisuaren gainbegiratzeta, kirolariak, dietoterapia (patologiak).

Hitzordua eskatzeko:

ZAINBERRI

Rondilla kalea, 6 • Tolosa • 943 65 21 86

Elketa Jatetxea



Inauterietako menu berezia

- Etxeko foie terrina fruitu gorriekin
- Iberiar urdaiatzpikoa
- Txangurro, aguakatea eta olagarroz eginiko entsalada epela
- Ondoa risottoa
- Garaiko barazkiak urdaiazpikoarekin
- Zapo, ezkira eta muskuluz beteriko krepa, marisko saltsarekin
- Legatza melatua
- Txibiak pelayo erara
- Txekor masailak gisatuak
- Txuleta zatiak pikiloekin
- Etxeko tartak
- Brownie-a krema ingelesarekin
- Mandarinazko cava sorbeta
- Kafea, etxeko kriantza, sagardoa eta ura barne

Prezioa: **30€**
(bez-a barne)

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Asteburuko menu berezia
- Adosturiko menua

Enkarguz:

- Taldekako babarrun jatea
- Txerrikumea • Arkumea

ERRESERBA EGITEKO:

San Miguel bailara, 2 • Hernalde •

943 65 21 16

elketajatetxea@hotmail.com